

*Onintza Lasa*

EUSKO ALKARTASUNAKO LEGEBILTZARKIDEA

## Ate bat ireki dugu

**E**z dakit 2008ko ekainaren 27a Euskal Herriaren historian urrezko letretan idatzita geratuko den. Ez dakit egun histori-koa izan zen ala ez; hori denborak esango digu, baina bai izan zela egun garrantzi- tsua, eta ondorio positiboak ekarriko ditu gai- nera. Gure herriko egoera politikoa desblokeatu nahian, bakea eta normalizazioa bilatu nahian, Eusko Legebiltzarrak herriari hitza ematea ahalbidetuko duen legea onartu zuen. Oinarritzko ariketa demokratikoa izan da eta etorkizunean beste ariketa demokratiko batzuk ere egin beharko ditugu, honako hau lehenen- go urratsa baino ez baita izan.

Ez dago gizarteari bere iritzia eskatu eta errespetatzeko konpromisoa har- tzea baino ezer demokratikoagorik. Zinez, alderdikeriak alde batera utzi eta gatazka politikoa behingoz konpondu nahi dugunok aukera paregabea dugu. Konponbidearen oinarriak –indarkeria- ren desagertzea eta erabakitzeke esku- bidea– ipini ditugu mahai gainean, ezta- baida politikoa erdi-erdian.

Kontsultaren inguruko iskanbila mediatikoak eta hika-mika politikoak, hala ere, PSOEren eta PPren beldurra agerian utzi dute. Galdeketa- ren muinera joan ordez, euren Konstituzioa hartu eta legezkotasunaz hitz egiten digute, baina mamiari dagokionean ez dute inolako argudiorik ematen. Euskal herritarrek hitza hartzeko zilegitasun osoa dute, arazoa PSOE-



ALBERTO ELOSEGI

ren eta PPren borondate politikoa falta da. Bel- dur diote euskal gizartearen erantzunari, beldur diote demokraziari.

Ezker abertzalea ere beldurrez jokutzen ari da. Beldur dio benetako konpromisoak har- tzeari. Besteen ustezko kontraesanak bilatzea ez da modurik eraginkorrena guztiok egin beharreko bidean aurrera egiteko. Aurkako jarrera ez eraikitzaile hutsak behingoz baztertu eta konpromiso serioak hartzeko ordua heldu zaio. Ezker abertzaleak erabaki behar du, edo kritika hutsean geratu, hasitako prozesuari kan- potik begiratu, edo Euskal Herri independen- tea eraiki nahi dugunok bidea egin, herri gal- deketa jasotako bi printzipioak oinarritzat hartuta.

Ate bat ireki dugu, lehena, eta etor- kizunean beste ate batzuk ere ireki beharko ditugu. Batzuek sarraila bor- txatu omen dugula argudiatuz, Auzitegi Konstituzionala harresi gisa erabili nahi dute, baina herri borondatea geldiaraz dezakeen harresirik ez dago. Meha- txuek eta gehiengo arrotzak herri aho- tsa isilarazteko inposatu nahiak ezingo dute euskal gizartearen bake nahia gel- diarazi. Ate ireki dugu eta bidean has- teko prest gaude. Eusko Alkartasunako gizon-emakumeok bide horretan aurki- tuko gaituzte, bidelagun, bakarrik gure eskubide nazionalen aldeko gehiengo demo- kratiko zabala egituratzeak ekarriko duelako gatazka politikoa konponbidea. ■

«  
Besteen ustezko kontraesanak  
bilatzea ez da modurik  
eraginkorrena guztiok  
egin beharreko bidean  
aurrera egiteko  
»

HIRUKO TXIKIAN

*Joxemari Ostolaza*



Zuen. Ikaragarri. Manifatan aurpegia zapiz estalita baino bulegotik bulegora ibiltzen zenean, txukun janzen zen gaztediaren liderra lege hartzen zuen Jarraikoen zatarren aurkako eredu. Etorkizun oparo-koa zuen, ingeniari azkarra, hizkuntzak ikasteko erraztasu- na zuena, orekatua, jendetasunezkoetan berezko imanaren jabe zena. Europara igorri zuen, euren ordezkari. Handik itzuli eta Eusko Jaurlaritzan eman zituen denboraldi zen- bait industriagintza alorrean. Jubilatzeke garaia heldu zitzaionean, bera ordezkatzeko izendatua zuenaren aurka aurkeztu zuen bere burua. Eta irabazi egin zion partida

## Lehen famatzen

Joseba Egibarri. Handik goiti, ez zuen gustuko eta aukera-maukera guztiak baliatu zituen Sabin Etxe-ko nagusi berria kritikatzeko. Ataka gaiztoan ezarri zuen alderdi barruan. Eta urrezko gazte hark, alde egin behar izan zuen nerabezartotik zuen etxetik Ipar Amerika aldera. Repsolek Petronoreko lehendakaritza eman dio berrikitan. Leku horretara iristen den gazteena izan liteke. Beraz, EGIko gazte lider hark, aurreikuspenak bete ditu. Baina jada, urrutiegi joan da baimenik eskatu gabe. Eta Xabier Arzallusek ezin izan du jan, irentsi behar izan du. Bere- berea zuenak alde egin zionetik ezin du jasan. Ados naiz egin duen diagnostikoaz. Nork egin duen dut arazo. ■